

Goierriarra

351. zenbakia 2008ko azaroak 21

Ana Agirre:
Industria, Merkataritza
eta Turismo sailburua

JAURLARITZAKO **ATAUNDARRA**

faktore
KOMUNIKAZIO
GRAFIKOA

↙
Oriamendi, 37 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 088 169
faktore@faktore.net
www.faktore.net

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA
ETA KOMUNIKAZIOA

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Obama



Odei Lopez

Bi urte borrokan pasa ta gero
presidente da Obama
azala ilun zeukalako
txintxo gixa ageri dana
berak mundua aldatzeko ere
egina omen du plana
baina batzuei ondo doakie
guk sufritu behar izana
Bushen jarraipen baietz izandu
berak egindako lana.

Bi urte luze Mckain ta bera
pelma handien neurrira
berriz halakoik ezagutzerik
nik behintzat ez dut nahi tira
Beltzen alde lan egingo zula
mila alditan argira
nahiz eta gero berak oiekin
ez beldur ta ez kupida
horrelakotan adierazpenak
airean gelditzen dira.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

6. Euskara txukuntzen: Ze hitz bai...
eta ze hitz ez! (I)

5. Ingurugiro txokoa: Ibaiaren lekua.

6. Euskara: Euskaraz bai! Abenduaren
13an BEC-en.

8. Elkarrietzeta: Ana agirre Industria,
merkataritza eta turismo sailburua.


14. Artisauladia: Koki Hernandez,
zeramikaren artisaua.

18. Erreportajea: Mutiloako Meatze
trenbidea, oinezkoentzako egokitua.

22. Goierritar berriak: Natividad
Obama.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (I)

(Euskara batuan)

Maizpide
euskaltegia

Euskara batuan zuzenak izan ez arren, badira zenbait hitz, hainbat arrazoi direla medio, behin eta berrero erabiltzen ditugunak. Zein hitzez ari garen jakin dezazuen, erreparatu eskuineko zutabeari (ezkerrekoan forma zuzena agertzen da):

✓ Zuzen	✗ Oker
Doan	Dohan
Dohainik	Doainik
Ospitalea	Hospitala
Umore	Humore
Konfiantza	Konfidantza
Aire girotua	Haize girotua
Deuseztatu	Deuseztu
Dokumentua (agiria)	Dokumentoa
Andrea	Anderea
Bosgarren	Bostgarren
Lauzpabost	Laupabost
Aldiriko tren	Ingurutrena
Ehunka	Ehundaka
Erantzukizuna	Erantzunkizuna
Artxibozaina (agirizain)	Artxibaria
Gaixo	Gaiso
Laster	Laister
Ezkutatu	Izkutatu
Iaz	Ihaz , igaz
Istoria (pasadizoa...)	Historia
Ingurumen	Ingurugiro
Lehenbailehen	Lehenbaitlehen
Notarioa	Notaria
Islatu (<isla)	Isladatu (<islada)
Ordenagailua	Ordenadorea
Komun	Amankomun
Afaria	Aparia
Puntua	Puntoa
Letreiatu	Deletreatu
Sumatu	Somatu

Meteorologia	Metereologia
Handia	Haundia
Lizentziaduna	Lizentziatua
Boluntario	Bolondres
Eskuin	Eskubi
Artzain	Artzai
Atxilotu	Detenitu
Gazta	Gaztaia
Zain egon	Zai egon
Atzealde (atzeko alde)	Atzekalde
Estandarra	Standarra
Gustura	Gustora
Batez beste	Batazbeste
Gustuko	Gustoko
Presako	Presazko
Derrigorrean	Derrigorrez
Diziplina	Disziplina (distziplina)
Eranskina	Eraskina
Gutxiengoa	Minoria
Funtzionarioa	Funtzionaria
Ziur	Zihur
Igarri	Igerri
Jardun, jarduera	Ihardun, iharduera
Merkatu	Merketu
Konpromisoa	Konpromezua
Ministerioa	Ministeritza
Oro har	Orohar
Irakasgaia / ikasgaia	Asignatura
Teorian	Teorikoki
Liburuzaina	Bibliotekari(o)a
Ukitu	Ikutu
Pozoia	Pozoina
Petroliuntzia	Petroliuntzia
Sobera	Soberan
Osaera	Osakera
Testuingurua	Kontestua

Xapik pozoia jarri
badit, erantzukizuna
berea izango da!



Gorri txakurra, gustuko afariaren aurrean....

Laster ospitalean
izango haiz, aire
girotu eta guzti!
Kar-kar!



Zuzendu, behar izanez gero...

1. Estatu Batuetako hospital horretan ezer ez dun dohan; horrexegatik dituen hain gaiso gutxi.
2. Bibliotekariak funtzionario horri ea lizentziatua zen galdetu zion.
3. Petroliuntziaren atzekaldean Somaliako piratak izkutatu ziren.
4. Obamaren aldeko bolondresek ehundaka ordenadoretan gorde zituzten dokumentoak.
5. Humore oneko andere horren etxean ihazko gaztaia jan genuen.

OHARRA: lehenengoan, *ospitala*, *doan* eta *gaixo* behar du; bigarrenetan, *liburuzainak*, *funtzionario* eta *lizentziaduna*; hirugarrenetan, *Petroliuntziaren atzeko aldean (atzekaldean)* Somaliako piratak *ezkutatu ziren*; laugarrenetan, *...boluntarioek ehunka ordenagailutan gorde zituzten dokumentuak*; bosgarrenetan, berriz, *Umore oneko andre horren etxean iazko gazta* jan genuen.

Ibaiaren lekua

Askotan komentatzen da, ibaiek, errekek eta itsasoek bere lekua behar dutela. “Egia borobila”. Uholdeak daudenean orduan eramaten ditugu eskuak burura eta “a ze hondamena” esaten dugu. Uholdeak kalteak sortzen ditu, baina non dago arazoaren koska? Non eraiki dira gure herriak, hiriak, etxeak, lantegiak, kanpinak...? Ibai lautadan alegia, ibaiaren urek gainezka egiten dutenean, pausatzen diren lekuetan. Nolatan ematen dira baimenak edonon eraikitzeko?

Horrela, behin eta berriro Naturak edo kasu honetan ibaiek jasaten dute gizakien ez-jakintasuna eta akatsak.

Oria ibaia

Oria ibaiaz hitzegin nahi nuen kasu honetan, Ordizian eta Beasain arteko zatiaz. Egunero paseatzera joaten ginenean, bai familiarekin, lagunekin edo bakardadean... bazegoen “Oria ibai zati apartekoa”. Harri-naturalez osatutako ur-jauzi lasaia, gardena, non amurrainak ikusten ziren, bere bizitzaren bidea eta bere babes tokia zen. Hementxe! Bai, toki honetan non Martin



arrantzalea bisitan etortzen zen, uraren kalitatea ona zela baieztatzeko. Bai, justu zati zoragarri honetan, orain aste batzuk makinak izan dira dragatzen, alegia ubideko harri eta zorua berdintzen, eta baita amurrainek bizilekua suntsitzen. Hainbeste denbora behar izan du ibaiek bere urak eta bazterrak berreskuratzeko...eta orain hau? Hori bihotzeko mina.

Zergatik zulatu?

Non dago uholdeak sortzen duen inbutua? Zer egin dezakegu ibaiari benetan bere

tokia uzteko? Mina eta tritura ematen didate horrela-ko ekintzek.

Ordizian maite nituen 4 tokietatik, Txindoki-Aralar, Oiangu, Mariaratz eta Oriako ur jauzi apal hau, hiru hondatu dituzte dagoeneko.

Ea hemendik aurrera, erabaki bakoitzak ‘begiak zabaldu’, sentsibilizatu eta denon (natura-gizaki, bat baitgara) onura sortzen duen.

Beste aukera emango diogu bizitzari, naturari eta pertsoneri, egin beharreko gauzak ondo bideratzeko.

Web orri hauetan egin-dako salaketak ikus ditza-kezu:

- <http://fotodenuncia.greenpeace.es/?campaignid=1&lat=43.117024121350475&lon=-1.99951171875&zoom=7>

- <http://fotodenuncias.diariovasco.com/2008/10/06/dragado-del-rio-oria-en-beasain/>

Isabel eta sentimendu berbera izan duten guztiak

JAKIN BEHARREKOAK

Intsektu espezie berria anbarretan aurkitu dute. eBay web gunean erosi zuen Richard Harrington entomologo britaniarrak. Afidoaren berri bazuen baina ez zekien espezie berria izango zenik. Afido honek 3/4 mm neurtzen ditu eta *Mindarus harringtoni* izena jarri diote.

Armiarma exotikoak Erresuma Batuan hedatzen ari dira klima epelagoa bilakatzen ari delako. Hori dela eta, armiarma exotikoak biziraun eta hedatzeko aukera gehiago dituzte. Araknido hauek kanpotik ekarritako barazki, fruitu eta landareetan etortzen dira.

Metal astunak (Kadmio, Zink...) zurgatzen dituen landareak Lanestosa (Bizkaia). Utzitako meatze guneetan lurzoruko metal astunak jasateko gai den landare dibertsitate handia aurkitu ohi da. EHUn aurkeztutako doktorego tesi batek mingarratzaren, Rumex acetosa, gaitasuna ikertu du.

WEB GUNEA

Real Jardin Botanico de Madrid bere web gunean 1755. urtean sortu zen instituzio honen berri eskaintzen digu. Bisita birtuala egiteko aukera dugu eta hainbat atal ditu: bere historian zehar eginiko espedizioak, berriak, agenda, ikastaroak, erakusketak eta abar. Horrez gain, 30.000 liburuz osaturiko liburutegia, XVI, XVII, XVIII mendeetako liburuak ere bai. www.rjb.csic.es

**Ordizian maite nituen
4 tokietatik, Txindoki-Aralar,
Oiangu, Mariaratz eta
Oriako ur jauzi apal hau,
biru hondatu dituzte
dagoeneko.**



Euskaraz Bai!

Abenduaren 13an denok BECera!

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bere hamargarren urteurrena ospatu eta datozen urteotan egin beharreko ibilbidearen berri emateko, ekitaldi jendetsua deitu du datorren abenduaren 13an, 18:00etatik aurrera, Barakaldoko BEC-en. “Egun seinalatua izango baita euskararen normalizazioa lortzeko lanean ari garenontzat. Abenduaren 13an milaka herritar bilduko gara ‘Euskaraz bai’ esateko, orain dela hamar urte burututako ‘Bai euskarari’ jaialdi erraldoian egin genuen bezala. Orduan, Euskal Herriko bost kirol estadio bete genituen eta gizartearen euskararen aldeko jarrera irudikatu genuen. Gaur egun, euskararen alde egoteaz gainera, konpromiso berriak behar direla aldarrikatzen dugu. Aldekotasunetik haratago, normalizazioarako bidean konpromisoak indartzearen beharra ikusten dugu, euskara ikasi eta erabiltzearena. Denok

euskara ikasten badugu, hizkuntzagatik inor baztertuko ez den egoera batera iritsiko gara, bizikidetzaren hobetuko dugu, horregatik diogu ‘Euskaraz bai!’”, dio Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak.

Kontseiluak, Bizkaia Arenan egingo duen ekitaldian euskararen normalizazioan ‘Pauso bat harago’ joatea ezinbestekoa dela adieraziko du. Xabier Mendiguren, Kontseiluko idazkari nagusiak gaineratu duenez, “kartelean ikus daitekeen bezala, urrats sendo-

ak emanez soilik lortuko dugu helburu hori. ‘Pauso bat harago’ joateko, ezinbestekoa da euskararen aldeko jarrera azaltzetik euskara erabili eta ikastera igarotzea. Horregatik berregin dugu orain arte erabilitako ‘Bai euskarari’ leloa, ‘Euskaraz bai’ bilakatuz”.

Telefonoa eta webgunea

Ekitaldia dohainik izango bada ere, sarrera edo gonbidapena eskuratzea beharrezkoa da. Telefonoz nahiz webgune bidez eskatu ahal izango dira sarrerak. Gonbi-

dapena edo txartela, bi bidetatik eskuratu ahal izango da: 902 82 02 40 telefono zenbakia eta nierebanoa.com webgunea erabilia. “Jendeak ‘ni ere banoa’ esatea nahi dugu, ‘ni ere banoa BECera’ eta ‘ni ere banoa pauso bat harago’. Horregatik sortu dugu nierebanoa.com izeneko webgunea. Bertan dagoen eskaera orria osatu ondoren, eskatzaile guztiei etxera bidaliko zaie sarrera”, zehaztu du ezkiotarrak.

Mendigurenek euskal gizarte osoari luzatu dio abenduaren 13an BECera joateko gonbidapena. Sarre-rra lehenbailehen eska dezaten gomendatzen dute, milaka lagunentzako tokia egongo den arren, sarrera gabe gera ez daitezen, erantsi du.

Nierebanoa.com

Kontseiluko komunikazio arduradun Haritz Rodriguezek, bestalde, nierebanoa.com webgunea-

Denok euskara ikasten badugu,
hizkuntzagatik inor baztertuko ez den
egoera batera iritsiko gara,
bizikidetzaren hobetuko dugu;
horregatik diogu ‘Euskaraz Bai’.

ren xehetasunak azaldu ditu eta BEC-eko ekitaldia iragarriko duen flash animazioa ere aurkeztu du. Bideoa, beste gune batzuetan ez ezik, nierebanoa.com helbidean dago ikusgai multimediatan atalean. Eta nahi duenak bertatik jaitsi dezake bere ordenagailura.

Webguneak bost atal nagusi ditu. Lehenengoan, 'Gonbidapenak' izena duen horretan, nahi duenak formularioan eskatzen diren datuak idatziz eskuratu ahal izango ditu sarrerak. Eskabidea bete bezain pronto, e-posta helbidean berrespen mezua jasoko dute eskatzaileek. Hortik aurrera, Kontseiluak etxera bidaliko dizkie eskatutako sarrera guztiak ahal bezain pronto.

Eskabideak egiteko epea abenduaren lehen astean amaituko da, eta, beraz, sarrerak agortu baino lehen eskaria egitera animatzen ditu herritar guztiak.

Webguneko bigarren atalak 'Euskaraz bai' du izena, eta bertan Kontseiluak bere 10. urteurrenaren harira egindako hausnarketaren ondorio den agiria irakur daiteke. Erabiltzaileek agiri hori ezagutu eta bere atxikimendua helarazteko bidea aurkituko dute atal horretan.

Albisteak atalean, besteak, Kontseiluaren azken berriak daude irakurgai. Bertan jarraitu ahal izango du, nahi duenak, hamargarren

Autobusak Goierritik

Abenduaren 13an, arratsaldeko 6etan, Barakaldoko BECen Kontseiluak egingo duen ekitaldi nagusirako autobusak antolatu dituzte Goierriko hainbat herritako Euskara-eragileek.

Autobusen abiapuntuak

- Lazkaon, Lazkao-txiki zelaia (Estankoaren ondoan); arratsaldeko 3etan abiatuko da.
- Ordizian Frai Andres Urdanetaren estatua (zuhaizti ondoan); arratsaldeko 3,15etan abiatuko da, eta
- Beasainen Loinazko San Martinen estatua (Erauskin plaza); arratsaldeko 3,30etan abiatuko da.
- (Beste herriren batzuetan erabat betetzea gertatuz gero, herri haietatik abiatzea ere aztertuko da).

Autobus-txartelek 10 euro balio dute. BECera sarrerak autobusean bertan emango dira. Txartelak, azaroaren 17tik abenduaren 3ra bitartean, biak barne, egongo dira salgai.

Txartelak erosteko tokiak

- Beasainen, Basakana tabernan (J. M. Iturriotz, 11) eta Arrano tabernan (Kale Nagusia, 12).
- Idiazabalen, herriko ohiko tabernetan.
- Lazkaon, Gerriko liburudendan (Elosegi 16).
- Ordizian, Hitzaroren bulegoan (Egutera bidea, 5; lehengo Milagrosa ikastetxea, tfnoa.: 943 16 23 66) eta Mujika liburudendan (Kale Nagusia).
- Seguran, Elorripe tabernan.
- Zaldibian, Joxepa-enea tabernan.

urteurrenari buruzko informazio eguneratua. Multimedia izeneko sailean, berriz, hamargarren urteurrenaren eta abenduaren 13ko ekitaldiaren inguruko euskarri ezberdinak daude: flash animazioa, Kontseilua Telebistako bideoak, bannerrak, audioa eta kartela PDF formatuan eskuratu daitezke bertan, besteak beste.

Babesleen sailean, bestetik, BEC-eko ekitaldia babestu duten enpresa, heda-

bide eta instituzioak daude zerrendaturik, bakoitza bere irudi korporatiboarekin. Biziki eskertu nahi dugu horiek guztiek ekitaldia antolatu eta zabaltzeko eskaini diguten laguntza, esan du komunikazio arduradunak. Azkenik, 'Nola iritsi izena duen' atalean, Barakaldora bertaratzeko argibideak ematen dituen mapa txertatu dute.

Pertsona bakoitzeko gehienez 5 sarrera banatu-

ko ditu Kontseiluak. Elkarreko erakunderen batek sarrera gehiago nahi baditu, telefonora deitu eta azaldu besterik ez du egin behar. "Sarrera mugatua denez, zinez eskertuko dugu eskatutako sarrerekin BECera joatea. Ez genuke nahi inor bertaratzeko aukerarik gabe geratu dadin beste batzuek sarrerak eskatu eta joango ez direlako", gaineratu du Kontseiluko Komunikazio arduradunak.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

- Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
- Filtroak, olioak, engrasea
- Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
- Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Ana Agirre Eusko
Jaurlaritzako Industria,
Merkataritza eta
Turismo sailburua

**“Ekaitzaren
azpian gaude,
blai eginda
bukatuko
dugu, baina
aterako
gara”**


Jaiotzez bilbotarra da, baina bihotzez, ataundarra. Bere bizitzako lehenengo hiru urteak San Gregorion egin zituen. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua da eta legegintzaldia amaitzen ari den honetan, krisialdiaren mamua nagusitu da.

Gainerakoak bezala, ezustean harrapatu du krisiak Ana Agirre ere. Baina ekaitzaren ostean barealdia etortzen denez, krisitik indartsu aterako garela uste du. Merkataritzaz eta turismoaz ere jardun gara berriketan, Ana Agirreren Lakuako bulegoan.

Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZIKAI. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✖ Tximini eta ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak


Legegintzaldia bukatzen ari da. Nork pentsatuko zuen legegintzaldi hasieran horrelako krisi batean aurrean egongo gine-la.

Ez hasieran, orain dela 6 hilabete edo gutxiago, esango balidate... ere ez. Nik uste dut inork ez zekiela eta inork ez zeukala aurreikusita horrelako egoera bat. Ezta pentsatu ere!

Krisialdi oso berezia da hau. Orduan, erantzunak ematea ez da batere erraza. Jende guztiak galdetzen du ea prestatuta ote gauden. Horrelako krisialdi baten aurrean inoiz ez gaude prestatuta eta hori orokorrean ikusten baduzu, Fondo Monetario Internacional, ideiarik ere ez, Banco Central Europeo desastre... aurreikusitako datuak ia hilero aldatzen dituzte. Espainiako Gobernua, AEBetako gobernua, Europako gobernua ... jende guztia harapatu gaitu, ezjakinean. Nik uste dut horrelako zerbait inork ere ez zeukala aurreikusita.

Baina hori esanda, gu nola gaude? Gu geunden eta gaude, lehiakortasunaren aldetik, sekula egon garen baino hobeto. Nik uste dut gure enpresak dimentsioa hartzen ari zirela, berrikuntza politikan buru belarri sartzen eta lehiakortasun aldetik nik uste, gauza asko, gaitasun asko irabazi ditugula azken urteotan. Horrek sendotasun bat ematen digu krisiari eusteko eta pentsatzeko hau pasatuko dela. Baina egia esanda, ekaitz handiaren azpian gaude. Ekaitzaren azpian, denok bustita eta blai eginda bukatuko dugu. Hortik, batzuk gripearekin, beste batzuk pulmoniarekin, beste batzuk neumoniarekin eta beste batzuk gaizki. Hori hala da. Ni oso baikorra naiz, jakinda, oraindik momentu honetan, datorren urtea nola joango den aurreikustea ezinezkoa

Ataundar peto-petoa



Ataun

Inbertsioa //
Inversión: 965.000 Euro // Euros.

Sareak (metroan) // - Elakadura //
Red (metros): - Alimentación: 4.193

- Distribuzio //
Distribución: 3.974

dela, inork ez daki.
Gehienek diote, denek ez esatearren, okerrera egingo duela.

Begira, lehengo batean programa batzuk aurkeztu egon ginen Bilbon. Mario Fernández zegoen gurekin eta berak esaten zuen, Letren Teoria dela. Batzuk uste dute eta oraindik mantentzen dute, krisi hau V bezala dela. Hau da, ikaragarritzko beherakada izan da, baina hazkundera oso azkar gertatuko dela. Beste batzuk esaten dute ezetz, krisialdi hau dela, U bat bezala dela: jaitsi, mantendu eta igo. Eta orain ezkorrenek, L dela pentsatzen dute: jaitsi, mantendu eta gero gerokoak. Ni U letrarekin geldituko nintzateke. Ez dakit mantentze garaia, beheko arrastoa, urtebetekoa edo urte eta erdikoa izango den. Gauzak asko aldatuko dira bai eredu aldetik, bai

finantza aldetik... gauzak derrigorrez aldatu behar dira. Baina nik uste dut, ez dakit 2010. urtean izango den, 2011n izango den... alegia, U aren beheko arrastoa zenbat luzatuko den, baina aterako gara.

Orain behar dugu, gure enpresari, gure ereduari eustea. Eustea eta ahalik eta kalterik txikiena jasotzea. Hori da denon helburua: langile, enpresari, erakundeena... Eutsi gure ereduari! Inork ez daki nola etorriko den datorren urtea. Industria jarduera beheraka joango dela, hori seguraski horrela izango da baina eutsi egin behar diogu denon artean. Mantendu ahal den neurrian, lanpostuak, enpresak eta gure industria ezaugarria.

Nik uste dut gaitasun handia daukagula hau pasatzen denean, eta pasatuko da, ondo ateratzeko eta gai-

Bilbotarra da jaiotzez, baina bihotzez ataundarra. "San Gregoriokoa", zehaztu du Ana Agirrek. Hizkera ere Ataungoa du. Ataunekiko lotura azaldu digu ondorengo lerrootan.

"Bilbon jaio nintzen. Ama ataundarra da, aita pasaitarra zen. Oso gazterik Bilbora joan zen lan egitera. Ezkondu egin ziren eta ni Bilbon jaio nintzen. Etxean bizkaitar bakarra ni naiz. "Istripuz" jaio nintzen Bilbon. 7 hilabete nituela, izeba bat Ataundik joan zen Bilbora. Ume txiki hau, hemen, horrelako leku itsusian? Ezta pentsat ere. Hartu umea eta Atauna. 6-7 hilabeterekin eraman ninduten Atauna eta hiru urterekin bueltatu nintzen. Hiru urterekin, kolegioan haste-ko. Nik uste dut, txiki-txikitatik Ataunekin izugarritzko lotura eduki dut. Eta oraindik ere badaukat. Orain ere ia astero joaten naiz. Beti buelta bat ematen dut".

nera indartsu ateratzeko, denon artean gauzak ondo egiten baditugu.

Aurrekontuak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta enpresa txikiei eta ertainei laguntzak eskainiko dizkiezue 2009. urtean.

Egia da momentu honetan hainbat enpresa ertainek eta txikiek hainbat arazo dituztela. Ez bakarrik proiektu eta inbertsio berriak egiteko, baita ere dauzkaten proiektuak mantentzeko, diru falta dago. Bankuek eta kutxek itxi egin dute dirua eskaintzeko erraztasuna. Horretarako neurriak hartu behar ziren. Espainiako gobernuak Kutxei eta horrelako erakundeei ari zaie dirua eskaintzen baina diru hori ez da erakundeentzako. Enpresentzat eta biztanleentzat da. Hor behar da, dirua horra iritsi behar da. Gure neurriak doaz zu-

zen-zuzenean, biztanleen-tzako eta enpresa txiki eta ertainentzako, diru falta hori, ahal den neurrian babes-teko, jendeari laguntzeko eta kontsumoa ere pixka bat mugitzeko. Lehengoan bi programa laguntza aurkeztu genizkien autonomoei. Hileroko ordainketetan erraztasunak eman eta ez itotzeko eta beste gauza batzuk egiteko aukera emateko. Enpresa txiki eta ertainak, %80-85 izango dira. Euskal Autonomia Erkidegoan gure politika guztia-guztiekin helburu hori daukate.

Berrikuntza, garapena aipatu dituzu. Madrildik Berrikuntza eta Garape-

Ekaitz honetan,
batzuk sukarra
harrapatuko dute,
beste batzuek
gripea, besteek
pulmonia,
neumonia...

naren eskumena lortu berria du EAJk.

Egia esateko, lehiakortasun plana aurreikusitua genuen. Ikusi genuen berrikuntza faktore kritiko bat zela. Nahi genuen urrats hori ez enpresa handiek bakarrik egitea, ertainak eta txikiak ere berrikuntza politiketan sartzea. Eta hori da gure helburua. Eta hori da benetan behar duguna krisialdia bukatzen denean, eta bukatuko da, faktore hori oso-oso garrantzitsua izango da, herri hau berriz ere aurrera atera dedin eta aurrera egin dezan.



Momentu honetan, batzuk esaten dute, egoera larria jartzen baldin bada beharbada erronkak pixka bat aldatu egin beharko liratekeela eta lehentasunez buelta bat eman. Baina nik uste dut berrikuntza politika eta berrikuntzarako programa guztiak mantendu egin be-

har ditugula eta apustu hori mantendu egin behar dela.

Eskumena apustu horretan eta erronka hori lortzeko oso-oso garrantzitsua da. Bazen garaia!

Madrilek herri honen alde zerbait egiteko, beti oso garesti ateratzen zaigu. Baina aukerak ere aprobetxatu

egin behar dira eta nik uste dut akordioa oso akordio ona dela eta une honetan oraindik ere garrantzitsua goa. Ni pozik nago. Baita ere esan behar da, jendeak esaten du dirua bakarrik etorriko dela, baina hori alde bat da. Beste aldea da, orain arte erantzunkizuna

Madrilen zegoela eta orain guk daukagu. Horrek esan nahi du, guk ere, Jaurilaritza bezala, ardurak eta erantzunkizunak guk hartu behar ditugula, gure teiltuan dago erantzunkizuna.

Euskal Autonomia Erki-degoan industria indartsua daukagu. Horren sekretua zein da?

Nik uste dut sekretua gure gizartean dagoela, eta gure nortasunean ere bai. Baina ez orain bakarrik. Beti. Gure eredu, belaunaldi guztiak hazi eta hezi dira, industria eredu baten aurrean. Horrekin bizi izan gara denok eta uste dut hori gure ezaugarri oso-oso berezia dela, herri bezala. Eta ez da bakarrik erakundearen gauza bat, erakundeok bakarrik mantendu dugula, baita langileak, pertsonak, enpresariak... jende guztiak eredu hori eta ezaugarri horiek mantendu eta sendotu dituela. Erronka edo apustua gizarte bezala hartu genuen eta erakundeak hori bai, azkeneko 30 urteotan, politika guztia bideratu du, industria izateko gure ekonomia ardatz nagusia. Beste batzuk beste eredu batzuk aukeratu dituzte. Guk mantendu dugu gure industria.

Orain dela 35 urte eta gaur egun gure industria ez da berdina, asko aldatu da. Baina industria mantendu da. Gure ekonomiaren ardatz nagusia nik uste dut

industria izan dela, industria dela eta industria izatea nahi dugu.

Goierri etorri, enpresa garrantzitsuak ditugu.

Oso-oso. Goierri oso-oso enpresa indartsuak ditugu. Eta gainera, lehiakortasun aldetik, oso ondo prestatuak. Momentu honetan ere nik uste dut CAF, Indar, Ampo, Irizar... zenbat eta zenbat enpresa, ondo prestatuak daudela krisialdiari eusteko. Horrek ez du esan nahi arazorik ez denik izango baina nik uste dut ondo prestatuta daudela eta be-

dugula gure aldetik baikortasun pixka bat, jakinda aurrera egin behar dugula eta denon artean. Beste egoera larri batzuk pasatu ditugu, eta nik uste dut honi ere eutsiko diogula.

Herritarrek beldurtuta ikusten dira.

Ni ez naiz harritzen. Egunero egunero, jasotzen ditugun albisteak eta mezuak, guzti-guztiak, ezkorak dira, alarmistak askotan. Gauzak oso gaizki doaz, datorren urtea oso gogorra izan behar da, interes tipoak pixka bat jaisten hasi dira baina

da. Merkatariek sentitzen dute gehien. Konfiantza falta da momentu honetan krisialdi honen ondorioetarikoa bat. Krisialdi honen ezaugarri nagusia, konfiantza falta da. Konfiantza falta banku batzuen artean eta besteetan, konfiantza falta biztanleetan... Konfiantza falta hori denok modu batera edo bestera sentitzen dugu eta hori azkeneko gure eguneroko erabaketan nabaritzen da.

Agintariek hain mezu ezkorak emateak kalterako da beraz.

Ez da batere erraza neurria ondo hartzea. Oso mezu baikorra botaz gero, gobernu hau autokonplazientea dela esango dute, gobernu hau lainoetan dago. Ezkorra baldin bazara, jendea beldurra eta konfiantza falta handiagotu egingo zaio. Neurria hartzea ez da batere erraza. Nik behintzat, ez dakit lortzen dudana, baina ahalegin guztia egiten dut gauzak garbi esateko. Ahal den argiena esatea, nik pentsatzen ditudan bezala. Eta ni berez baikorra naiz baina horrek ez du esan nahi ez ditudanik arazoak ikusten. Horrek ez du esan nahi ez ditudanik ikusten aurtengo azkeneko hiru hilabeteak eta hurrengo urtea ez direnik batere errazak izango. Momentu honetan baikorra izatea da, gure gaitasunak ikusi eta jakitea gaitasun horiek hor daudela, ekaitza

Nik uste du momentu honetan, denok jarri behar dugula gure aldetik baikortasun pixka bat, jakinda aurrera egin behar dugula.

raiek dira hainbat enpresa txikitara eta ertainetara lana ekartzen dutenak. Handiak ondo baldin badoaz, txikiak ere mantenduko dira.

Langabezia tasa ikusten baduzu, Goierri dauka eskualde guztietako baxuena. Datorren urtean nola joango da? Arazoekin, baina nik uste dut Goierri ondo dagoela, oso ondo prestatuta. Ni goierritarra naiz eta espero dut hala joatea. Ni baikorra naiz. Nik uste dut momentu honetan, denok jarri behar

azkeneko urtean gora eta gora joan dira... egunero erosten ditugun gauzak ere garestitu egiten dira. Gauza guztiak ikusi eta mezuak entzunda, benetan mezu ezkorak dira. Beraz, kontsumoa jaitea eta jendea pentsatzen jartzea normala da. Etxeko erreforma bat egin behar badut, pentsatu egingo dut eta utzi egingo dut datorren urtera arte. Edo kotxea aldatzea. Erabaki denek ondorioa daukate eta kontsumoa jaitsi egiten

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846

627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)




- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobek"



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

“Herri bezala, ez dakit noiz, baina ziur nago erabakiko dugula”

Politikan, kontsulta gaia hor dago.

Herri bezala, ez dakit noiz, baina ziur nago erabakiko dugula. Nik uste dut, azkeneko kontsulta legeak porrot egin duela, edo behintzat ez da guk nahi bezala aterata, baina hor dago estatutu politiko berria bezala eta hor daude urratsak emanda. Orain ez dira aterata, lasai. Gure herriak urte asko dauzka. Erabakitze eskubidea gurea da, ez digu inork eman behar eta hori gauzatuko dugu. Ziur nago gainera, munduak, demokraziak, herriek parte hartzea politika guztietan geroz eta garrantzitsuagoa dela. Ez bakarrik parte hartzea, ardura ere bai. Parte hartzen duzunean ardura pixka bat eskatu behar zaizu. Baina nik uste dut politika egiteko moduak aldatzen ari direla eta aldatuko direla geroz eta gehiago. Ereduak ere, ekonomia eta finantza aldetik, aldatu egin behar dira eta aldatuko dira. Ez daukat inolako zalantzarik. Gertatu diren arazoak, AEBetan hasita, gero Europan, mundu guzti-guztian, horrek esan nahi du ereduak, arauak, ez dakit zehatz zer, baina zerbait falta da. Zerbaitek porrot egin du eta nik uste dut aldaketak sortuko direla eta aldaketak gainera onak izango direla. Garbiketa pixka bat egin behar da etxe guztietan, finantza aldetik eta arau aldetik. Aldaketak beharrezkoak izango dira.

Eta politikan ere, pixkaka-pixkaka, politika egiteko moduak aldatzen ari dira eta jendeak geroz eta gehiago parte hartu behar du. Eta herri bezala, ez dakit noiz, baina gure etorkizuna erabakitze daukagun eskubide hori gauzatuko dugu. Erabakiko dugu, seguru!

Ekonomia irakasle bati elkarriketa egin genion aurreko Goierritarra batean eta hark esaten zigun, krisiak, hausnarketarako izan behar duela, ikasteko.

Egia da. Baita egia da, askotan ez dugula gehiegi ikasten. Lehen esaten genuena, krisialdi hau oso-oso berezia da. Beste batzuk ere pasatu ditugu, baina oso ezberdinak.



1992n ere eduki genuen krisialdi nahiko sakona. Baina orduan oso ezberdina izan zen, faktoreak, ezaugarriak oso ezberdinak izan ziren. Ondorio baliagarriena izango litzaiteke, arauak berriro pentsatzea. Ez dakit, kapitalismo espekulatiboa, kapitalismo produktiboa... baina arauak eta ereduak berriz ondo pentsatzea da ondorioa. Nik uste dut sistema guztia zalantzan jarri dela eta erruak ikusi eta ikasi egin behar ditugula, gauzak aurreikusteko. Ez dakit ikasiko dugun baina hobea dugu ikastea.

pasatuko dela, eguzkia aterako dela berriz ere, blai eginda baina ea sukar pixka batekin, gripearekin bakarrik bukatzen dugun. Nik uste dut gaitasuna badaukagula aldi honetatik ondo ateratzeko.

Merkatariak nola ikusten dituzu?

Beldurtuta pixka bat. Erosketak sektore guztietan jaitsi dira. Kontsumitzaileen ohiturak aldatu egin dira, erabat. Eta denda batek bezeroak behar ditu, egunero-egunero eta ez bakarrik noizean behin. Herri txikiek denda txikiak hainbat eta hainbat arazo daukate. Ataunen, San Gregorion

adibidez, ez dago dendarik. Alde batetik, geure ohiturak aldatu ditugulako. Ataunen nora joaten gara erosketak egitera? Olaberrira, Senperera, Ordiziara... eta gertuen Lazkaora. Aste guztiko erosketak merkatal zentro handietan egiten ditugu. Eta denda txikiak horrela ezin dira mantendu.

Ni txikia nintzenean, San Gregorion, bi denda ezagutu nituen. Denetik saltzen zuten. Jendearen ohitura zen, bertan erostea. Gauzak orain erabat aldatu dira. Eta ari gara ahaleginak eta politikak martxan jartzen hori mantentzeko. Egia da, gure bizimodurako, denda bat egotea oso ga-

rarrantzitsua dela baina ez da batere erraza mantentzea.

Aurrekoan programa bat aurkeztu genuen, belaunaldi aldaketarena. Belaunaldi berri bat lortzea eta herri txikietan, 5.000 biztanletik beherako herrietan, laguntzak pixka bat gehitzea. Baina badakigu ez dela batere erraza. San Gregorion, azkeneko ereduak berriztatzen ari gara. Taberna bat daukagu baina tabernan egunkaria saltzen dute, ogia... larritasun bat badaukazu zerbait lortuko duzu. Baina hori nahikoa da? Askotan ez. Gure herrietan jende larria ere asko dago. Jende larriari aukerak eman

Turismo aldetik krisialdia ez zaio gaizki etorri Goierriari, beste aukera berezi bat bezala eskaintzeko turistei, prezio baxuagoan.

behar zaizkio. Gai horrek asko kezkatzen nau adibidez. Nire familian pentsatzen dut. San Gregorion bizi dira eta orain arte, osabak kotxea hartu eta hor jaten da. Gazteenek 75 urte ditu. Gainean gaude baina farmaziara joateko, errezeetak hartzeko... gaztea izanda kotxearekin edonora joan zaitezke. Baina arazo horrek kezka batzuk ematen dizkigu. Gure gizartea gero eta konplexuagoa da. Lehen jendea etxean zegoen, orain ia jende guztia lanean dago eta adinekoak edo larriak bakarrik daude etxean. Nola babestu behar dituzten beharrezko zerbitzuak? Gizarte bezala hainbat eta hainbat gauza oraindik egiteko dauzkagu eta jende larria gero eta gehiago da eta arazo guztiak ez daude ondo konponduta. Pentsatu egin behar da.

Guretzat dendak oso garrantzitsuak dira. 'Dendak non, bizitza han' da gure leloa. Hainbat eta hainbat ekimen martxan jartzen ari gara, ahal den neurrian, gure denda txikiak mantentzeko eta babesteko, jakinda, batzuetan ezin dugula adibidez, San Gregorion, beste era bateko denda ireki. Batetik ohiturak daude, baina bestetik, prezioak. Larritasuna daukazunean denda txiki-ira joango zara baina aste osoko erosketak ez dituzu egingo.



2004ko maiatzean Ana Agirre Goierriko hainbat alkate zinegotzi eta turismo arduradunekin Liernian egindako bileraren ondoren ateratako argazkia.

“Goierri eskualde aktiboa da. Mugimendu oso sendoa dago turismoaren alde”

Goierriin, azken urteetan, aldatu den beste gauza bat, turismoa izan da. Nork esango zuen duela 10 urte Goierriin horrelako turismo mugimendua sortuko zenik.

Bai, eta horretan ere uste dut esker berezi-berezia eman behar zaiola Goiturri eta oso bereziki Niko Osinalderi. Berak lan izugarria egin du, bai berak eta bai Goierriko alkateek ere. Ez dakit zergatik baina hor ikuspegi zabala eduki zuten hasiera-hasieratik. Turismo aldetik krisialdia ez zaio gaizki etorri Goierriin, beste aukera berezi bat bezala eskaintzeko turistei. Prezioak kostaldean baino baxuagoak dira, eta beste aukera bat da. Era batera edo bestera, egia da, Goierri eskualde aktiboena dela. Mugimendu oso sendoa dago turismoaren alde. Eta gainera ez dute Goierriin bakarrik begiratzen, ikuspegi askoz ere zabala dago eta orain dela gutxi Goierri Tolosaldearekin batera egin du akordio berezia. Eta hori ere eskertzekoa da. Azkenean emaitza oso onak dira. Eredugarriak dira, oso programa garbiekin eta oso sakon egiten dute lana. Kalitate programan ere, ziurtagiriak jasotzeko eta jendea pixkaka-pixkaka sartzeko, Goitur da eskualde aktiboena. Hori Goierriko jendearen ezaugarri bat da. Nik ez nuen esango duela 10 urte, turismo izango zenik Goierriin, gure nortasuna ezagututa, itxiak garenez. Azkeneko udako datuak nik uste dut nahiko onak izan direla Goierriin. Turismo bulegoetan %30 gehiago zenbatu da. Horrek esan nahi du mugimendua oso indartsua izan dela, eta asmatu dela.

**ARANDIA
GARAJEA**

LADA **SSANGYONG**

Autoen
konponketa

N-1, z/g lurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

Italia, Paris eta Txinako moda

MODAYANG
arropa eta osagarriak

Nagusia, 35 eta 40 • **BEASAIN**

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Mota guztietako
gida-baimenak


Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Koki Hernandez, zeramikaren artisaua



Ordiziako Koki Hernandezek, 14 urte daramatza buztina landuz eta mimatuz, artelanak egiten. Hari-lanak ere egiten ditu, baina bere lana zeramika da. Abenduaren 12tik 14ra bitarte-

an Ordizian egingo den Artisaualdia azokarako lanak prestatzen harrapatu dugu Barrenako tailerrean. Bi haurren ama da eta behin haurrak hazita, berriz ere serio heldu dio lanbideari.



MUJIKALIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Umetatik oso gustuko izan ditu eskulanak Koki Hernandezek. Irlandan ingelasa ikasteko egindako egonaldian, zeramikaz liluratu zen eta orduan erabaki zuen zeramikari heltzea. 19 urte zituen.

Honela, Ordiziako Udalak Barrenan duen zeramika tailerrera hurbildu zen duela 14 urte. Arantza Munita izan zuen zeramikaren sekretutxoak erakutsi zizkionak. Han eta hemen ikastaro ezberdinak eginez, bere ogibidea izango zena lantzen joan zen.

Duela bi urte, bere tailerra ireki zuen Majori plazan, baina oraindik ere, goizetan, Barrenako txokora joaten da, bertan gustura sentitzen baita eta tailerra egoki prestatuta baitago.

Denbora guzti honetan, esperientziarekin, buztina

ulertzen ikasi du. Buztina-ren sekretutxoak ederki ezagutzen ditu. Horretarako pieza asko puskatu ditu. “Gustuko koloreak aurkitu arte, asko kostatzen da”, dio Koki Hernandezek.

Buztin ezberdinekin lan egiten du: buztin gorria eta beltza eta errefraktoria erabiltzen ditu. “Aukera handia dago, 12-13 produktu ezberdin daude; ni hiru horiekin aritzen naiz”, zehaztu du ordiziarrek. Mota ezberdinetako buztinak nahastu

izan ditu. “Lehen beharba-da gehiago nahasten nituen”, aitortu du.

Buztin bakoitzak bere sekretutxoak ditu. “Buztina ere ezagutu egin behar da, askotan nahi dena ez da lortzen eta. Pieza bakoitzak bere istorioa dauka. Buztin mota bakoitzaren arabera, labealdiaren denbora eta bero kantitatea aldatuko da. Erabilitako materialaren arabera, ordu gehiago ala gutxiago behar ditu labean. Dena den, ordu asko. 12

ordu ere bai adibidez. Kolore eta esmalte ezberdinak ere bai behar izaten ditu”, gaineratu du.

Txurroz txurro

Eskuz egiten ditu banan-banan zeramikako piezak. Ordu askotako lana izaten da zeramakikako pieza bat sortzea. “Oinarri ona jarri behar zaio. Oinarria gaizki eginez gero, pieza gaizki aterako baita. Ondoren, banan-bana txurroak egin eta mimo handiz, lotu egin behar da dena, espatulatxoarekin”, azaldu du Kokik.

Tornuarekin lana azkarrago egiten da baina Koki Hernandezek oraindik ez dio eskurik hartu tornuari. Ikasteko gaietariko bat duela aitortu du. “Tornuarekin askoz ere azkarrago egiten duzu: Eskuz eginda, denbora gehiago behar da. Tor-

Koki Hernandezek 14rte daramatza
buztina lantzen eta mimatzen.
Buztina ulertzen ikasi du,
esperientziarekin.



Artisaualdia abenduan

Aurtengo Artisaualdia abenduan izango da, zehazki abenduaren 12tik 14ra bitartean. Ordiziako Beti Alai pilotalekuan izango da. Gipuzkoako eta Euskal Herriko artisauen erakusleihu eta topalekua izango berriro ere Ordizia, Gabiltzak eta Ordiziako udalak antolatuta. 38 artisau izango dira guztira. Berrikuntza ugarirekin dator aurtengo Artisaualdia.

Sarrera dohainik izango da. Azokaren ordutegia honakoa da: goizean 10:30etik 14:00era eta arratsaldean, 17:00etatik 20:30era.

‘Artisautzaren doinua’ izenarekin dator aurtengo Artisaualdia. Biolina eta albokak egiten arituko dira azokan, zuzen-zuzenean. Musika doinuak ere entzungai izango dira: Aitor Ucar eta Ivan Moreno donostiarren gitarra klasikoa; Irango musika zeltiarra egiten duen Hariots taldea; eta Ordiziako Musika Eskolako musikariak.

15 minutuko hitzaldi laburrak eta lanbide ezberdinen erakustaldiak ere izango dira hiru egunotan.

‘Pieza bakarra’ eta ‘Desiren zuhaitza’

Beste bi berrikuntza ere badira aurtengo Artisaualdian. Batetik, Barrenan, ‘Pieza bakarra’ izeneko erakusketa izango da. Artisau bakoitzak ‘Artisautzaren doinua’ lema-ri bere irudia jarriko dio. Ikusleek piezarik onena aukeratu ahal izango dute.

Eta azkenik, Gabonak gertuan izango direnez, norberak bere desirak zintzilikatu ahal izango ditu Gabonetako zuhaitz berezian.

noa perfekzioa da. Bestela, mimatu egiten duzu. Dena eskuz egiten dut eta egia esanda, asko gozatzen dut”.

Koloreak sortuz

Behin buztinezko pieza egin eta labean lehortu ondoren, koloreztatzeke garaia izaten da. Koloreak sortzen ere artisaua da Koki Hernandez. “Produktu ezberdinak, pixatuta, nahastu eta koloreak ateratzen ditut”. Batzuek egindako koloreak erabiltzen dituzte baina Kokik, berak sortzen ditu. “Egia esanda, lanik okerreina da niretzat. Lan handia da. Nahiago dut piezak egitea, koloreak sortzea baino. Ezusteko asko gertatzen dira gainera. Nahiz eta berdina egiten saiatu, miligramoren bat gehiago jarrita edo ur gehiegi botata, aldatu egiten dira koloreak”.

“Txuletak” eginda dauzka. “Formulak bezala dira. Eginez ikasten da, hanka sartuz. Polita da. Pintatzeak ere bere zailtasunak ditu. Esmalte batzuk lan handia ematen dute. Buztinaren arabera, aldatu egiten dira koloreak”.

Hori bai, Kokiren piezetan falta ezin litekeen kolore bat badago: judea betuna. “Judea betunaren zale sutsua naiz. Ia pieza guztietan jartzen dut. Borak eere asko erabiltzen ditut”, azpimarratu du.

Etengabe berrituz

Buztin ezberdinak nahastuz eta koloreztatuz sortzen ditu piezak Kokik. Eskulturak, txarroak, hautson-tziak... neurri ezberdineta-koak. “Denetik egiten dut. Aldatzea gustatzen zait, jendeak gauza ezberdinak ikusi ditzala. Ikasteko ere gauza berriak egin behar dira. Buztina ere zaindu beharra daukazu, ez baduzu zaintzen, askotan labean leher-tu egin baitaiteke. Buztinak jartzen dizkizun arauetara moldatu behar zara. Berritu egin behar gara, bestela



Koloreen artisaua ere bada Koki Hernandez. Berak sortzen ditu bere gustuko koloreak.



jendea aspertu egingo litza-teke”.

Koki Hernandezek badu beste berezitasun bat: sorgintxoak. “Oso ondo pasatzen dut sorgintxoak egiten. Bati halako aurpegia, beste-ari halakoa; zutik, eserita... jendea gustatzen zaizkie”.

Azoketan saltzeaz gain, enkarguz ere egiten ditu lanak. “Erretiratu samar egon naiz bi ume txiki baititut. Baina azoketara joaten naiz nire lana ezagutzera emateko eta hortik gero enkarguak etortzen dira. Jende asko etortzen da, zerbait zehatza nahi duelako. Etxearen izena adibidez. Era-kusleio onak izaten dira azokak”.

Jendea denetarik dago. Batzuek estimatzen dute, eta besteek ez hainbeste. “Nik uste dut denetik dagoela. Nik beti esaten dut, gustatuko litzaidakeela nirekin tailerrera etorri eta nirekin batera egin dezatela pieza bat, ikusteko zenbat orduko lana den, eta gero baloratu dezatela, prezioa ondo dagoen ala ez. Jendea badago artisautza asko baloratzen duena. Baina garestia dena diona ere badago. Eta nik ulertzen dut. Artisautza ezin duzu, adibidez, merkatu txinatarrarekin konparatu. Erdi Aroko azokan gertatu izan zait. Denok nahastuta egoten gara eta zure pitxarraren prezioa, pitxar industrialarekin konparatzen dute. Baina ez dauka inolako zerikusirik. Pieza berdinek ez dago. Jende askok, artisautza asko baloratzen du eta postua ikusten ari denean, benetan ikusten duzu ikaragarri gustatzen zaiola. Eta hori gustatzen zaigu. Jende askok uste du, gu han saltzeko gaudela. Baina ez, niri begiratzea ere gustatzen zait eta jendeak ikusi dezala zer egin daitekeen eta animatu daitezela egitera. Pena da artisautza galtzea. Denetik dago. Baina estimatzen duenak, benetan

estimatzen du eta hori eskertzen da. Gerturatu eta baloratu dezala jendeak”, azpimarratu du Koki Hernandezek.

Azokek ere balio izaten dute artisauen arteko harremanak sortu eta sendotzeko. “Harreman ona daukagu gure artean”, zehaztu du.

Gazteak artisauaren munduan sartzen ari ote diren galdetu diogu ordiziarri. “Ez dakit zehazki baina nik uste dut gero eta gehiago hasten direla. Baina ez dago gazte gehiegirik. Gogorra da, hilean ez baituzu soldata finkorik izango. Eskolak ematen ditut eta badakizu soldatatzori izango dudala. Baina azoka batera joaten zara, batzuk ondo aterako zaizkizu baina beste batzuk beharbada ez hain ondo. Azoka bat prestatzeko ordu asko sartu behar dira. Baina gustatuz gero, saiatu egin behar. Ni bikotean bizi naiz, bi gara. Hilabete bat gaizki joaten baldin bazait, bikotea hor dago. Baina bakarrik egongo banintz eta honetatik bizi, oso gogorra izango litzateke. Azoka guztietara joan beharko nintzateke, oso konstantea izan. Badago jendea tailerrik ere ez duena. Nik duela bi urte jarri nuen eta oraindik autonomia ere ez naiz. Baina saiatu behar dago, merezi du eta”, aitortu du.



Majori plazan duen tailerrean eskolak eman dizkie haurrei.

Hari lanak eta eskolak

Ordiziako Majori plazan, duela bi urte, tailerra ireki zuen Koki Hernandezek. Haurrei eskulan eta zeramikako eskolak ematen dizkie. Oso gustura aritzen da lan horretan ere. “Denetik erakusten diet. Adibidez, eskulan birziklagarriak egiten. Bota behar diren gauzekin gauza asko egin daitezke, irudimenarekin; gauzak baloratu ditzatela. Egia esateko, oso gustura nago. Haurrek oso ondo pasatzen dute”, dio Koki Hernandezek.

Harizko lanetan ere aritzen da Koki. Besteak beste, arropa eta manta koloretsuak egiten ditu. “Nire haurrei egiten hasi nintzaion. Denda bati gustatzen zitzaion eta hasi egin nintzen, baina ez dut nahi horrekin identifikatzea. Tailerrean badaukat, josten ikasten nahi duenarentzat”, zehaztu du.

Berekasa ikasi du puntua egiten. “Auzoan, adineko pertsonaren bat ikusten nuenean puntua egiten, joan eta ikasten saiatzen nintzen. Puntua teknika da. Zeramikan, teknika eduki behar da baina eskua ere bai. Harilanean, teknika dago, eta horrela eta horrela da. Gero koloreak nahastea da. Autodidakta naiz. Zeramikan teknika bada, baina eskua behar da, beste zerbait behar da”, azpimarratu du.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza,
Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET,
First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, beheka **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



Mutiloatik Ormaiztegira 4,5 kilometroko bidean, paneletan trenbidearen azalpenak ematen dira

Mutiloako meatze trenbidea, oinezkoentzako egokitua

Mutiloako Troia meatzetik Ormaizteginainoko 4,5 kilometroko trenbide zaharra, oinezkoentzako egokitu dute eta bide horrek duen historia ezagutzeko informazio panelak jarri dituzte Mutiloako eta Ormaiztegiko udalek, elkarlanean. Troia meatzearen historiari buruz datu gehiegirik ez badago ere, jakin badakigu, 1890ean azkeneko aldiz funtzionatu zuela trenbideak.

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Troiako meatzea

Troiako meatzeaz ez dago datu gehiegirik, baina azterketak egiten ari dira Josune Zaldua eta Beatriz Herreras historiagileak. Mutiloako meatzaritzaren jatorria Erdi Aroan dago. Inaki Ugalde Mutiloako alkatearen esanetan, "Troia meategiak aspaldikoak dira. Izenagatik, erromatar kutsua dutela dirudi baina ez dakigu. Aspaldikoak direla garbi dugu baina data zehatzik ez dugu. Mutiloan meatzeek garrantzia handia izan dute". Momentuz, bidea garbitzea, egokitzea eta interpretatzea izan da lehenengo egin dena. "Orain gauza asko ari dira azaltze. Eraikinak agertzen ari dira. Horiek aurrerago landuko dira", zehaztu du.

Herrian jendeak ez du oroimenean gordeirik. Baina "Troia meategia garrantzitsua izango zen. Bere garaian eskola ere bazegoen. Fase ezberdinetan ibili zen jendea. Fase batean ingelesak eta alemaniarak ibili ziren. Estatu mailako jendea ere ibili zen gero. Umeentzako eskola bat egoteko familia asko egongo zen. Kantinak ere baziren. Bere garaian aktibitate handia izan zen", gaineratu du Ugaldek. "1890 inguruan da azkeneko aldiz trenbideak funtzionatu zuela, ia duela 100 bat urte. Burdina, zinka ate-



Barnaola baserriaren inguruan hasten da ibilbidea.

ratzen zuten bertan. Azkenekoetan beruna ere ateratzen zuten. Mutiloako mina izan da itxi den azkenetakoa duela 15 bat urte edo", gaineratu du mutiloarrak.

Mutiloako meatzaritzaren jatorria Erdi Aroan dago. Bertako meak antzinako olak zein Europako siderurgiaren labe modernoak elikatu zituen.

Jarduera garrantzitsu hori bukatuta, paisaiak garai batean gertatu zen eraldaketa handia erakusten du. Lehenengo fase batean, Mutiloan trenbidearen laugune zaharra berreskuratu da, bide berde bihurtuta.

1898-1927an bidali zuen azken karga Compañía Minera de Mutiloak Pasaiaraino. Handik Baionako Bokaleko fabrika siderurgikoetara ateratzen zen. Meategiko trenbide hau berreskuratu

eta orain bide berde gisa erabiltzen da.

Mutiloako meategiko tren Lointziko magaletako instalazio multzoan amaitzen zen. Bertan daude plano makurtuak, biltegiak, kaltzinateko labeak, aireko kableak eta inguruan lan egin zuten konpainien trenbideak. Ondare multzo garrantzitsu hau bigarren fase batean berreskuratuko da.

1898an, kapital bizkaitarra zuen Compañía Minera de Mutilo konpainiak meategiko tren honen lanak hasi zituen.

Leku honetan bertan hasten zen, 4.538,63 km-ko bidea egiten zuen, 0,75 m

zabal zen eta 40,1 m-ko desnibela zuen.

Egunero 300 tona burdin mea eramaten zuen Mutiloako eta Zeraingo Aizpeako meategietatik.

Lurrin makina

Compañía Minera de Mutilo konpainiak hiru lurrin makina izan zituen, 45, 35 eta 25 CV-koak. Horietako biri Mutilo eta Pepita esaten zitzairen.

Mutilo izenekoa 1900ekoa zen, Kerr Suart konpainia britainiarrek egin zuen eta Pasaiako portutik ekarri zuten meatzeraino. Asturiasko Mieresen eman zituen azken egunak, eta

1965ean txikitu zuten bertan.

Pepita, berriz, Hannoverren egin zen, Alemanian, Maschinen Ban Actien Gesellschaft fabrikaren.

Biak ala biak, Makinetxe esaten zaion eraikin honetan gorde eta konpontzen ziren.

Potxuetako zubia

Meatze trenbideak lurra zaitu eta lehenagoko bideak aldatu zituen. Hainbat lubaki eta ingeniari lan egin behar izan ziren. Potxuetan, azarna hauek trenbide gaineko bideari dagozkie.

Bide berdea egokitzeko lanak egiten ari zirela, tren-



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72


201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGO A
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



bidearen jatorrizko errailak agertu ziren, Alemaniako Bochumen 1881ean eginak.

Lierniko zubia

Meaz kargaturiko bagonek zubi bakar hau igaro behar zuten Ormaiztegira bidean. Hainbeste erabiltzearen ondorioz, mantentze lanak etengabeak ziren. Azken garaian bertan behera utzi eta gero, antzinako trenbidea bide berde bilakatu izanak XX. mende hasierako ingeniariatzako azpiegitura hau berreskuratzeak aukera ekarri du.

Bide estuko trenbide honek, Ormaiztegin barrena, Mutiloako eta Zeraingo mea Europako siderurgietara iristea ahalbidetu zuen. Ateratako tona kopuruak eta erliebeak sistema hau aukerarazi zuten: egokiena eta errentagarriena zen. Ingeniaritza lan hau egiteko bidea egokitu behar izan zen, hainbat lan eginez, horien artean zubi bat, pasabide goratu bat, drenatzeak, lubakiak, eustormak, harri lubetak, errailak eta trabesak. Laugune hau berreskuratzeak jatorriko elementuak bide bere berde berrian integratzea ekarri du.

Drenatzeak

Lurraren ezaugarriek eta klimak bidean zehar hainbat drenatze eginarazi zituzten, trenbidea babesteko. Horie-


tatik zazpi identifikatu dira, tipologia desberdinetakoak. Horietako batzuek eginkizun bera betetzen dute berriro ere, bide berri honetan integratuta.

Geologia

Danborren Aizpeako meategiko mea eta Mutiloakoa

bereizi egiten ziren. Konpainia bakoitzak maldan behera zituen instalazioetara bideratzen zituen bere burdin tonak. Eta handik Norteko ferrokarrilari lotzen zitzaizkion, Pasaiara bidean. Meategi bakoitzean ateratzen zen minerala oso desberdina zen. Cerain Iron

Ore Company Limited etxeak burdin karbonatuak ateratzen zituen, Aizpeako labeetan kaltzinatzen zirenak eta Mutiloako Konpainiak Monastegizarren garbitzen ziren txirretako minerala eta burdin karbonatuak ere. Ormaiztegin kiskaltzen ziren.



Mineralaren koadroa

Mutiloako minerala

100 librak daukate
8 libra manganoso oxido
8 libra azido karboniko
9 libra silex
75 libra burdin oxido

Zeraingo minerala

100 librak daukate
8 libra azido karboniko
10 libra silex
12 libra kare
3 libra manganoso oxido
67 libra burdin oxido

Bide berdea

Mutiloako meatzeko trenbide zaharra, Bide berdea bihurtu dute Mutiloako eta Ormaiztegiko udalek, elkarlanean. 4,5 kilometro ditu. Mutiloan, Barnaola baserriaren ondoan hasten da. Ormaiztegin aldiz, geltokitik gorago. Lierni gainean ere hartu liteke bidea, ezkerrera zein eskunera. Hantxe prestatu dute gainera, atsedenera, mahaiekin eta aulkiekin. Iturria ere jarri dute. 2,50-3 metroko zabalera du ibilbideak. Puntu ezberdinetan, Troiako meategiaren eta trenbidearen informazio panelak jarri dituzte. Ibilbideko puntu ezberdinetan, informazio panelak jarri dituzte, leku bakoitzean zer zegoenaren berri emanez. Oinez zein bizikletaz egin liteke bidea. Trenbide zaharraren errailik ez dute aurkitu, baina erraila margotu dute trenbidea irudikatzeke, Lierni gainean.

Mutiloa eta Ormaiztegi herriak elkarrekin aritu dira proiektu honetan eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzarekin berreskuratu da bidea.

Bide berdea izena eman diote ibilbideari, Bide berdea izeneko zirkuituan sartzeko asmoa baitaukat Goierriko ibilbide berritu hau.



Jon Intxausti, Ormaiztegiko alkatea eta Iñaki Ugalde, Mutiloako alkatea.

gipuzkoako
artisauen
azoka
ORDIZIA 2008

artisansauak
kontzertuak
erakusketa
tailerrak...

XI. ARTI/AVALDIA

abenduak 12-13-14
BETI-ALAI frontoia

ordutegia 11:00- 14:00
17:00- 20:30

sarrera dohain

Antolatzaileak



Babeslea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento

Laguntzaileak



Natividad Obama, 'Obama euskalduna'

Gineako 'arranoa'

Beasainen bizi da



Natividad Obama. Afrikako Ekuatore Gineakoa da. Due-la 5 urtetik, Beasainen bizi da, Jose Manuel Garmendia azkoitiarrarekin. Aurretik, 15 urtean, Madrilén bizi izan zen.

Barack Obamak Amerikako Estatu Batuetako hauteskundeak irabazi dituenetik, Beasainen bizi den Natividad Obama komunikabideen deiari erantzun ezinik dabil. Kostata baina azkenean hartu du Goierritarraren bulegora etortzeko tarte-txoa. Senarrarekin etorri da, Jose Manuel Garmendia azkoitiarrarekin.

Arranoa esan nahi du Obamak eta Afrikako lau herrialdeetan dago Obama abizena: Kenia, Camerun, Ginea eta Gabon. "Obama abizenak sustrai bera dau-

ka. Fan dialektokoak gara, bantua da. Hizkuntza hori hitz egiten ez duen inork ezin dezake izen hori edukiti. Obama izena, oso-oso noblea da, gauzak ikusten dakigu", dio Natividad Obamak. Ikertzaile lanean has-teko asmoa dauka. 89 urte dituen osaba bati deitzeko-tan da, Obama abizenaren sustraien berri eta nondik gatozen konta diezaion. "Gaixo dago eta ezin omen du hitz egin baina senda-

tzen denean deituko diot. Gaztea nintzenean, nire gurasoak hil baino lehenago, nire gurasoek beti esaten zidaten, jakingo bazenute daukagun familia nolakoa den! Baina ez nien jaramonik egiten eta ez zitzaidan interesatzen", gaineratu du.

Dena den, aitona-amonek kontaktukotik zerbait gogoratzen du. "Afrikako gerraren garaian, esklabutza garaian, bakoitzak bere familiarekin bere bizia aurkitu

zuen, ahal zuen bezala Kenian. Beste batzuk Gineara joan ziren, beste batzuk Gabon, Camerun, Congora... hori zen nire aitona-amonek kontaktzen zidatena".

Obamatarrak modan daude eta bakoitza bere kontura ari da azarnak bila. "Zerbait egon beharra dago. Ziur dago, gertukoa izango dela", esan digu ziurtasunez Beasaingo Obamak. Natividadek aurkitzen badu, etorriko omen zaigu esatera. Hitza hartu diogu.

Ikerketaren emaitza zein den, "Amerikara joango naiz korrika, benetako harrotasuna delako. Berak egin duena, historikoa da. Historikoa da lortu duena. Esklabu beltzek eraikitako Etxe Zurira sartzea handia da. Beharbada nire urruneko familiartekoak Etxe Zuria eraiki zuten esklabuen

Esklabu beltzek eraikitako
Etxe Zurira presidente afrikarra
sartzea handia da.

artean zeuden. Nire aitona-
amonek gauza batzuk kon-
tatzen zizkidaten. Eskla-
buak eramán zituzteneko
kontuak kontatzen zizkida-
ten baina nik esaten nien,
dagoeneko garai hartan ez
geundela. Berak nigatik
esaten genuen: neska hau
munduan ibiliko da eta ez
daki nondik datorren ere!",
gogoratu du.

Jarraitzaile sutsua

2008ko azaroaren 4a ez du
sekulakoan ahaztuko Nati-
vidadek. "Hauteskunde
egunean, ez nuen batere lo-
rik egin, goizeko 6ak arte.
Nire semea ere berdin. Joan
zen igandean, festatxo bat
egin zuten zenbait Obama-
tarrek, ospatzeko. Eta
gehiago ere ospatuko du-
gu". Urtarrilaren 20an presi-
dente kargua hartzen due-
nean, negar egingo omen
du.

Aurre kanpaina hasi ze-
netik jarraitu du Obama.
"Elizara joan eta otoitz egi-
ten nuen. Bushek Obamaz
gaizki hitz egiten zuenean,
negar egiten nuen. Ze gaiz-
toa den Bush!", dio Oba-
mak.

Bi arrazoiengatik dago
pozik Natividad Obama.
Batetik Obamatarra delako,
baina batez ere, Amerikako
Estatu Batuetako presiden-
tea afrikarra delako. "Afrika-
rentzat mundua asko alda-
tu da Obamak hauteskun-
deak irabazi dituenetik. Ba-
tzuetan beldurra ere badau-

"Euskaldunak onenak zarete"

Duela bost urtetik Beasainen bizi da Natividad Obama, Jose Manuel Garmendia azkoitiarraren ondoan. Aurretik, 15 urtean bizi izan da Madrilen. Bikotea, Jose Manuel Madrilen soldadu-tza egiten ari zela ezagutu zen. Pozik bizi dira Beasainen.

Gaur egun munduko txoko ezberdinetako jendea gure ar-
tean ikustea arrunta bada ere, duela 20 urte ez zen horrela.
Dena den, Natividadek ez du sekula arazorik izan. "Duela 20
urte gurasoak hil zitzaizkidan. Han egoteko gogorik gabe nen-
goen eta hona etorri nintzen, hegazkineko txartelarekin. Nik
ez dut inoiz arrazakeriarik sumatu. Madrilen bizi nintzeanean,
oso lagunak ziren, eta dira, bizilagunak. Nire ama ematen du
batek eta besteek nire ahizpak. Inoiz ez dut arrazismo askorik
sentitu, nik buruan ez daukadalako sartuta. Norbait beste herrialde batera baldin badoa,
egokitu egin behar da. Buruan ezin dugu arrazismoa sartu. Izan ere, buruan arrazismoa
baldin badaukazu, aurkituko duzu. Ez daukat inolako kexarik. Batzuk esaten dute naba-
ritu dutela baina egia esango dizut, nik ez. Ez Madrilen eta ez Euskal Herrian. Niretzako,
euskaldunak, onenak zarete. Momentu honetan ez nintzateke hemendik inora joango",
azpimarratu du Obamak.

Momentuan langabezia dago Natividad. "Adineko pertsonak zaintzen lan egiten dut
eta zaintzen nuen adineko pertsona hil egin baitar", zehaztu du.

Euskara irakasten ari zaio senarra. "Frantsesa oso ondo hitz egiten du, fan, gaztelera
ere bai..", azaldu du Jose Manuel Garmendiak. "Lasai-lasai", esan digu Natividadek. "Gus-
tatuko litzaidake. Zerbait ulertzen dut, hitzen bat edo beste ere bai. Baina oso zaila da",
gaineratu du. Armando semea, Tolosako ikastetxe batean erizaintza ikasten ari da eta eus-
karaz ikasten ari da. "Nire semeak ulertzen du. Ez du hitz egiten, baina ulertu bai", dio
harro.

20 urte hauetan, behin bakarrik itzuli da Gineara, duela 10 urte. Udan aspaldiko par-
tez, Gineara joateko asmoa dauka senarrarekin.



kat, ea zerbait egingo ote
dioten. Kargu handia da eta
arazo asko dauka. Krisia
dela, bi gerra... Baina fedea
badaukatu, dena ondo atera-
ko dela. Bizitza ondo eza-
gutzen du, behetik goraino.
Pobrezia eta aberastasuna,
dena ezagutu du Berak ba-
daki nondik gatozen eta
Afrikan nola bizi garen. Ho-
rrek asko lagunduko digu,
bai Afrikari eta bai mundu

guztia", aitortu du Bea-
saingo ginearrak.

Etxe Zuriko Obamak
gauzak ondo egingo dituela
ziur dago Beasaingo Oba-
mak. "Mundu guztia rentza-
ko onurak espero ditut.
Egoera zailean sartu bada
ere, dena konponduko dela
espero dut. Garai ilunak di-
ra baina argituko da. Arra-
noak indartsuak gara. Gine-
an oso-oso garrantzitsua da

arranoa. Ez da edozein mo-
dutan ikusten hegazti hau
baina indartsua da. Afrikan
oilok, solte hazten dira.
Txitoak harrapatzen ditu
beti arranoak. Horregatik
deitzen diogu Obama. Oso
ezkutu fuertea da. Edozein
motatako hegaztiak jaten
eta erasotzen ditu baina be-
re arrazakorik ez. Arranoak
asko errespetatzen dira Afri-
kan".



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Jose Agustin Jauregi

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lurrindegia eta opari gaiak



kutxa

Goierrri

Abenduaren 12tik 14ra, euskal liburu azokak izango dira Ataunen, Beasainen, Lazkaon eta Seguran

Ataun

Aurten, San Martin auzoan izango da euskal liburu eta disko azoka, abenduaren 12,13 eta 14an, Irakurle taldeak antolatuta. Ordutegia: Ostiralean 6etatik 8ak arte; larunbatean goizeko 10etatik iluntzeko 8ak arte; eta igandean 10etatik 2ak arte. Produktu guztiek %15eko beherapena izango dute udalaren laguntzari esker. Egitaraua zehaztu gabe badago ere, hona hemen azokaren inguruan izango dira ekintza osagarriak:

- ✓ Azoka aurreko astean, Iñaki Egaña historialariak hitzaldia emango du gerra zibilaz.
- ✓ Gotzon Barandiaran Larrabetzuarrak, Katamalo lana aurkeztuko du.
- ✓ Ainara Gorostizu eta Nerea Elias ataundarrek 'Eta gerra etorri zen' liburua aurkeztuko dute.
- ✓ Anjel Irigoras zegamarrak, 'Zegamako papelera' lana aurkeztuko du.
- ✓ Murkondo eta Sastarri taldeek elkarlanean eginiko 'Pilar Barandiaran' DVD a aurkeztuko dute.
- ✓ Jon Zabaleta ilustratzaileak, ilustrazio tailerra emango du txikientzat eta ipuinak kontatu ere bai.
- ✓ Iñaki Mendigurenek Harry Potter aurkeztuko du.

Beasain

Gernikako pasealekuko pilotalekuan jarriko duten karpian egingo da abenduaren 12tik 14ra XIX. liburu eta disko azoka. Ostiralean eta larunbatean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; eta igandean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. % 10eko beherapena izango da.

Abenduaren 9tik 11ra

- ✓ Hitza eta Goierrri telebistara bisitak helduentzat.
- ✓ Xabier Mendigurenen 'Bizitza homeopatikoa' liburuen aurkezpena. Abenduaren 11n, libururaren inguruko topaketa egingo da.

Abenduak 10, asteazkena:

17:30etan: Udaletxeko Batzar aretoan, 'Hitzen lapurra. Bertsotxongiloak'.

Abenduak 12, ostirala:

10:00etan: Ikastetxeentzako bisitak. **17:30etan:** Ixabel Millet ipuin kontalaria. **18:30etan:** Bertso Eskolako en saioa. **19:00etan:** Aurtzakako dantzariak.

Abenduak 13, larunbata:

11:00etan: Jolasen erakusketa. **12:00etan:** Hitzalditxoak jostailuak aukeratzeko irizpideak. **12:30etan:** Bertsolariak. **17:00etan:** Haur antzerkia Usurbe antzokian. **18:00etan:** Tere Irastorzen liburuen aurkezpena. **19:00etan:** Suga taldearen disko berriaren aurkezpena eta sinatze ekitaldia.

Abenduak 14, igandea:

Goizean, mendi irteera. **11:30etan:** Migel Angel Mintegiren liburuen aurkezpena. **12:30etan:** Mendizaleei ongi-etorria.

Lazkao

XX. Euskal liburu eta disko azoka ospatuko da abenduaren 12tik 14ra bitartean. Lazkaoko Udalaren laguntzarekin, %15eko beherapena izango dute liburuek eta diskoek.

Abenduak 10, asteazkena:

18:30etan: Gerriko txokoa, solasaldia: Benito Lertxundi abeslariarekin berriketan.

Abenduak 12, ostirala:

17:30etan: Azokaren inaugurazioa. Orri markagailuen eta 2009ko egutegien banatzea. **18:00etan:** Azokan, Harry Potter bilduma guztien aurkezpena, Iñaki Mendiguren itzultzailearen eskutik. **20:00etan:** Udaletxeko areto nagusian, liburu aurkezpenak: Nerea Elias eta Ainara Gorostizuren 'Eta gerra etorri zen. 36ko gerraren eragina Ataungo eguneroko bizimoduan'; eta Jone Ormazabalaren 'Goierriko egitura industrialaren erradiografia'.

Abenduak 13, larunbata:

11:00etan: Azokaren irekiera. **13:00etan:** Azokan, salda beroa. **17:00etan:** Haur jolasak. **19:00etan:** Plazan: Zinta karrerak 14tik 18 urte bitarteko gazteentzat. **19:30etan:** Disko aurkezpenak.

Abenduak 14, igandea:

Goizean: Eskolarteko kros txapelketa eta II. Antzar kroa. **13:00etan:** Azokan, salda beroa.

Abenduak 18, osteguna:

20:00etan: Maizpide euskaltegian, Lazkaoko eta Ordiziako Mintzalagunen kantu afaria.

Abenduak 21, igandea:

11:30etan: Gabonetako III. euskal kantu lahiaketa, Aeria Kulturgunean.

Segura

Gainerako herrietan bezala, abenduaren 12tik 14ra izango da Segura ere liburu eta disko azoka, Elorri Kultur Elkarteak, Gazte Asanbladak eta Hitz eta Irri euskara elkarteak antolatuta. Egitaraua eta lekua oraindik guztiz zehazteko badago ere, ordutegia honakoa izango da: ostiralean, 18:00etatik 20:30era; larunbatean, 11:00etatik 20:30era eta igandean, 11:00etatik 14:00etara. Produktu guztiek %15eko beherapena izango dute, Udalari esker.

Ordizia

D'elikatuz jardunaldiak

1. jardunaldia: 'Elikadura, osasuna eta jarduera fisikoa'.

1. jardunaldiko arduraduna: Ana Elbusto, Nutrizio medikua.

Azaroak 21, ostirala:

16:00etan: 'Gaur egungo bizitza estiloa eta oparotasunaren gaixotasunak: ikuspegi eboluzionista'. Hizlaria: Jose Enrique Campillo, Extremadurako Medikuntza fakultatean fisiologia katedraduna.

17:45ean: 'Elikadura ohitura egoki batzuk gaur egungo gizarterako'. Hizlaria: M. del Puy Portillo, Nutrizio eta Dioterapia arloan EHUKo irakaslea.

19:30ean: 'Jarduera fisikoren garrantzia eta onurak gure osasunean gaur egungo gizartean'. Hizlaria: Jon Iratzusta, EHUKo Medikuntza eta Odontologia fakultatean fisiologia katedraduna.

Azaroak 22, larunbata:

09:00etan: 'Kilogip: Gipuzkoak eskola-haurren jarduera fisikoa eta obesitateari buruzko ikerketa'. Arduraduna: Enrique Perez de Ayala Medikua eta Poliklinika Gipuzkoako Kirol Medikuntza Zerbitzuko arduraduna.

10:00etan: 'Gazte gipuzkoarrek egiten duten jarduera fisikoa eta kirol jarduera'. Hizlaria: Laura Gonzalez eta Nerea Saenz de Urturi, Kilogip ikerketako nutrizioan adituak.

11:00etan: 'Bizitza ohiturak, elikadura eta jarduera fisikoa hobetzeko estrategia eta programak'.

2. jardunaldia: 'Elikadura jokabidearen nahasteak eta jarduera fisikoa'

2. jardunaldiko arduraduna: Iñigo Otxoa de Alda, EHUko Psikologia fakultateko irakaslea. Psikoterapia Dinamiko eta Sistemikoaren Euskal erakundeko lehendakaria.

Azaroak 28, ostirala:

16:00etan: 'Elikadura jokabidearen nahasteak'. Ikuspegi orokor bat. Hizlaria: Iñigo Otxoa de Alda.

17:45ean: 'D'elikatuz Bizi 2007 ikerketaren ondorio nagusiak: Elikadura-jokabideak, osasun mentala eta hazkuntza estiloak Gipuzkoako nerabeetan'. Hizlaria: Iñigo Otxoa de Alda.

19:30ean: 'Jarduera fisikoan gorputz irudiaren garrantzia'. Hizlaria: Iñaki Olaskoaga. Piskologoa.

Azaroak 29, larunbata:

09:00etan: 'Elikadura Jokabidearen nahasteak kirolarietan'. Hizlaria: Itziar Alonso-Arbiol, EHUKo Psikologoa fakultateko irakaslea.

12:00etan: Mahai ingurua. Partehartzaileak: Itziar Alonso-Arbiol, Jose Ignacio Baile, Iñigo Otxoa de Alda.

Ordizia

Barroko aire kontzertuak

Azaroak 22, larunbata: A Capella Portuguesa, Urda-netaren omenez. 20:00etan, Eliza Nagusian.

Azaroak 28, ostirala: Donostiako Orfeoia, 20:00etan, Eliza Nagusian.

Txotxongiloak

Abenduak 2, asteartea: 10:30ean, Errusiako San Petesburgoko txotxongiloak: 'Ahatetxo itsusia'.
18:00etan, Venezuelako Bengala taldearen 'Filipo'. Gazteleraz.

Abenduak 3, asteazkena: 10:30ean, Errusiako Obraztsoveko txotxongiloen, 'Obraztsoven hoberena'. Gazteleraz. **18:00etan,** Alemaniako Fifth Wheels taldearen 'Harien kabareta'.

Segura

Egutegirako argazki lehiaketa

Segurako Udalak I. Argazkigintza Lehiaketa antolatu du, 2009ko egutegia ateratzeko. Lanak Segurako Udalean aurkeztuko dira azaroaren 30era bitartean. Seguran erroldatuta dagoen 16 urtez goitiko edonork parte hartu ahal du. Gaia: Segura. Bi modalitate izango dira: zuri-beltzean eta koloretan. Egile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal zango ditu gehienez. Bi modalitate izan arren sariak banatzerakoan ez dira bereiztuko. 1. saria 300 euro eta bigarren saria 150 euro.

Legorreta

Ipuin lehiaketa

Ipuin lehiaketan 3 maila egongo dira. Haurrak (Lehen hezkuntzako 6. maila bitarte), gazteak (16 urte bitartekoak) eta helduak (17 urtetik gorakoak). Lanak aurkezteko epea abenduaren 12an bukatuko da. Legorretako Udaletxean utzi beharko dira lanak. Sari banaketa Gabonetako ekintzen barnean egingo da, abenduaren 30ean, iluntzeko 7etan. Gazte Piku gaztetxean egingo den ekitaldian emango da aditzera epaia. Irabazlea nor den jakin aurretik aurkeztutako ipuinak irakurriko dira.

Sariak honakoak izango dira: Haurren mailan, Tolo-sako Bilintx liburudendan erosketak egiteko 80 euroko balea. Gazteen mailan: Argia euskal aldizkariaren urtebeteko harpidetza. Helduen mailan: Argia euskal aldizkariaren urtebeteko harpidetza.



San Inazio, 5
20200 BEASAIN
Telf: 943 16 21 92
Fax: 943 88 36 33

GERTU
Inmobiliaria

www.inmogertu.com



Ormaiztegiko eskola neskatoak, 1923. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Paulina Monforte (maistraren ahizpa), ezezaguna, Modestina Zumarraga, Bonifazia Monforte (maistraren ahizpa), Manolita Lasa (Zelaeta), ezezaguna eta Ramona Lasa (Zelaeta).

2. ilaran: Dolores Zufiaurre (Olabarrietatziki), Manulea Kanpos, Eugenia Manzisidor, Ramona Zufiaurre (Igara), Enkarna Esnaola (medikuaren alaba) eta ezezaguna.

3. ilaran: Jabiera Aranburu (Etxeberri Garakoa), ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Juanita Carrion (Motzene), ezezaguna, Maria Oiarzabal (Sagastiberri), Amelia Zamorano (ferrobioarean alaba), Mari Azurmendi eta Maria Oiarbide.

4. ilaran: Paz Monforte (Maistra), Roxario Agirrebengoa (Sosoaga), ezezaguna, ezezaguna, Karmen Lizarazu (Antonene), ezezaguna, ezezaguna, Bittori Astarbe (errota), ezezaguna, Pilare Arzelus, Eulogi Otegi (Telleri) eta Jesusa Mendizabal (Zamora).

Beheko ilaran: Joxepa Lasa (Zelaeta), Margarita Lizarazu (Antonene), Antonia Iza Mendia, Felisa Oiarzabal (Sagastiberri), Blanka Irizar, Maria Jesus Borde, Maritxu Lizarazu (Antonene), Maria Luisa Intxausti (Karterone), Manuela Oiarzabal (Sagastiberri), Kasilde Arzelus eta Gabriela Zufiaurre (Igara).


ZUBARA
 Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
 Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
 ABALTZISKETA

PSIKOLOGI KLINIKOA

 Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
 umeen,
 bikoteen eta
 sexologi
 tratamenduak


mazda

☎ 943 889 296
 Faxa: 943 887 952
 N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN

Bikar, S. A.



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
 barne diseinua
 dekorazioa

Garai berrietarako
 ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
 Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Goierritik 20 minutura...

Sukaldeak

Etzetresna elektrikoak

Bainugelak

Zeramikak

Horma-armairuak

Beheko suak




LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29
Lakuntza (Nafarroa)
Tel.: 948 57 60 68



www.lopetegui.es





PRIUS



Toyota Prius 22.500 eurotik

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926

BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es